

Julià de Jòdar, idazlea eta CUPeko diputatu ohia

“Lider karismatiko bat falta izan da Errepublikarekin aurrera egiteko”

Badalonan jaio zen 1942an eta lau hamarkadatik gora darama lanean Kataluniako ezker independentistan. Ez da CUPeko militante, baina CUPeko diputatu atera zen 2015eko iraileko hauteskundeetan. Literaturaren munduan ere ibilbide oparoa du, baina oraingoan une oso zehatz bat aztertzerako ekarri dugu orrialde hauetara: urriaren 1eko erreferenduma eta Errepublikaren aldarrikapena. Elkarrizketa hauteskunde eguneko bezperan egin zen, abenduaren 20an.



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: JORDI BORRÀS

2015eko urtarrilean CUPeko diputatu izateari utzi zion Kataluniako Legebiltzarrean, Artur Masek Kataluniako Gobernuko lehendakari izateko uko egin zionean, CUPek betoa jarri ondoren. Junts Pel Sí-ren eta CUPen akordio hartan CUPeko bi diputatu ere dimititu behar izan zuten, eta horietako bat Julià de Jòdar izan zen. Hala ere, bere aldeak ez zuen zerikusirik afera harekin, berak hitzartua baitzuen CUPekin Legebiltzarrera utziko zuela, beranduenez urtarrilean: “Ni baldintza batekin joan nintzen zerrendetan, ez ateratzea; horregatik Bartzelonako zerrendan zazpigarrena izan nintzen, baina ezustekoa izan zen eta atera egin nintzen. Denek lotu zuten gero Masenarekin, baina nirea aurretik zegoen adostua”.

Masekin heldu ahal izango zen urriaren 1eko erreferendumera edo urriaren 27ko Errepublikaren aldarrikapenera?

Ez. Lehenago moztuko zuten. Carles Puigdemont independentista zaharra goa da, 17 urte zituenetik da independentista. Mas egon izan balitz, klase interesak gailenduko zitzaizkion inde-

pendentziaren gaiari. Lehenago lotuko zuten akordioaren bat Espainiako Gobernuarekin. CUPekiko elkarlana ez zen posible izango Masekin.

Urriaren 1ean iraultza egoera bat bizi izan zen Katalunian. Urriaren 27an Kataluniako Errepublika aldarrikatu zen, baina ordurako puxika hutsik zegoen. Zer gertatu zen tarte horretan?

Ni oso kritikoa izan naiz ANC eta Òmnium moduko elkarteekin, ez dute lidergo autonomo indartsurik sortu instituzio autonomikoekiko eta hauen sareetan harrapatuak egon dira. Carme Forcadell izan zen ANCko lehen lehendakaria eta gaur egun ERCko zerrendetan da; Jordi Sanchez bigarrena eta JxCateko zerrendetan joan da. ANCn ere alternantzia nagusitu da.

Urriaren 1ean arrakastak ezustean harrapatu zituen antolatzaileak. Egundakoz lehenago Jordi Sanchezek esana zuen milioi bat herritar bozkatzera joanda bera pozik zegokeela. 2,3 milioi pertsonak eman zuten botoa, eta Guardia Zibila eta Espainiako Poliziak beste 700.000 boto bahitu zituzten. Hau da,

guztira 3 milioi bat boto dantzan ibili ziren egun horretan, espero zutena baino hiru aldiz gehiago zen eta Gobernu eta entitateak ez ziren prest jendetza hori kalean izateko.

Irakurri dut irizpidea zela ilara bat eratzea bozkatzera joateko.

Hala egin behar zen, baina jendeak ilara ez, hesiak antolatu zituen eskoletako ateen aurrean. Gure agintarien jarra gehiago zen ikustea ea zer gertatzen zen, beti ere desafioa urrunegi eraman gabe.

Baina Mossoek ez esku hartzeko agindua zuten, hori argi ikusten zen. Hori ere bada nahiko desafio.

Bai, agindu hori zuten, gure Gobernuak ez zuen nahi istilurik herritarren eta Mossoen artean; ezta Mosso eta Guardia Zibila eta Espainiako Poliziaren artean ere. Baina erreferenduma argi irabazi nahi izateko ausardia falta izan zen. Hautetsontziak, adibidez, pertsona zibilek gorde zituzten mugaz bestalde, ez Gobernu jendeak. Herritarrek bideratu zuten operazio guztia eta ordaindu ere bai.



Determinazio falta aipatzen duzu, baina Gobernu hori hilabeteak aritu zen kontsulta prestatzen: Erreferendumaren Legea, Trantsizio Legea, zergak biltzeko erakundea... Kosta egiten da pentsatzea ez zuela bururaino eraman nahi.

Urriaren 1ean herritarrek kalearen espazio politikoa hartu zutenean, botere hori jendeak zuen, baina jendeak ezin du botere hori aurrera eraman, Gobernuari itzuli behar dio eta honek ez zion erantzun. Erantzun izan balu, Errepublikak aldarrikatu beharko zuen egun horretan bertan edo urriaren 3an, greba orokorra egin zenean. Hemen falta izan zen lider karismatiko bat, une horretan Errepublikak aldarrikatu eta aurrera egiteko prest, urriaren 1eko eta 3ko mobilizazio masiboen gainean zamalka.

Horren aurrean Gobernuak esan zuen Espainiatik iragarritako errepresio bortitza saihestu nahi izan zuela Errepublika aldarrikatu zenean.

Hori jarrera paternalista da. Herritarrek erabaki behar dute zer egin. Ez dut esango herritarrak denerako prest zirenik, baina bai askoz gehiagorako.

» “Gobernuak erreferendumari erantzun izan balio, Errepublika aldarrikatu behar zuen urriaren 1ean bertan edo urriaren 3an, greba orokorra egin zenean”

» “Oso kritikoa izan naiz ANC eta Òmnium moduko elkarteekin, ez dute lidergo autonomo indartsurik sortu instituzio autonomikoekiko eta hauen sareetan harrapatuak egon dira”

Kalean ehunka mila pertsona zegoen, baina Kataluniako gizartea prest zegoen horretarako?

Boterea hartzea ez du inoiz egiten gizarte osoak, ausartenek baizik. Egoera honetan gaia ez da %50 + 1 izatea, kontua da boterea hartu nahi izatea bai ala ez. Une hartan Espainiako Gobernuak ere ukitua zirudien, baina erreakzionatzeko denbora eman zitzaion. Zuk une batean Bartzelonan milioi bat pertsona baduzu kalean, nola erreprimitzen da hori?

Eta matxinadaren helburua zein izango zen, erreferenduma adostea edo Errepublika aurrera ateratzea?

Nik Errepublikarekin egingo nukeen aurrera, hori bai, jakinda galdu egin dezakezula. Baina orain ere galdu duzu eta orduko energia hori Madrilek inposatutako hauteskunde batzuen bidez bideratu behar duzu. Ikusi zer galdu dugun bidean. Egiazki, aukera urriaren 10ean galdu zen, 17:00etan CUPi jakinarazi zitzaionean gidoia aldatu behar zela eta Errepublika aldarrikatu bai, baina berehala bertan behera utziko zela. Aitzakia zein izan zen? Norbait agertuko

zela eszenatokian Espainiako Gobernua behartuz Kataluniako Gobernuarekin eseri eta negoziatzera. Bitartekari hori ez zen inoiz etorri. Espainiak Europar Batasunean duen indarra handiagoa da Kataluniako Gobernuak presatu zituen sostenguek baino. Bitartekaria iritsi behar da aurkariak borroka luzean ari direnean edo horietako bat errenditzen denean eta bake elkarrizketak eskatzen dituenean.

Zer gertatu da orduan?

Estatuaren marko juridiko-politikoan konfiantza gehiegi izan dela. 2015eko irailaren 27an esan zen 18 hilabetetan Errepublika egin nahi zela eta prestaketa lanak hasi ziren, baina batez ere esparru juridiko-politikoan: testuak, legeak... Eta esparru praktikoa, adibidez lurraldearen okupazioaren gaian? Ezer ez. Esquadra Mossoak guardia nazional bihurtzea falta izan zen, besteak beste.

Hori gerra izango litzateke.

Bai, jakina, orain ere gerran gaude, baina beste era batera, okupatuak. Balizkoei indar gehiegi ematen bazaie –“horren urruti bagoaz zer gertatuko da?”–, ez duzu frogan jartzen errealtatea; hau da, gertatuko da gertatu beharrekoa, nik egiten dudaren arabera.

Hau agian gogorra da esatea, baina orduan diozunaren arabera agintariak beren herriari amarru egin diote?

Ez, txarrago, euren burua engainatu dute. Boterea ez izatea txarra da, baina izatea eta ez erabiltzea askoz okerragoa. Hemen egiazko boterea izan zen kalean eta ihes egin zitzaion, Legebiltzarrerara atzera eginez. Indarririk bada, orduan egin ez zena egin beharko da orain.

Bigarren egunean berriz izango litzateke indarrean 155. artikulua.

Pentsatzen dut agintariak ikasiko zutela



» “Lehenengo gauza Mossoen kontrola litzateke, zalantzan izan daitezkeen mando guztiak kendu beharko lirateke eta Gobernuaren konfiantzazkoak jarri”

» “Hemen egiazko boterea izan zen kalean eta ihes egin zitzaion, Legebiltzarrerara atzera eginez. Indarririk bada, orduan egin ez zena egin beharko da orain”

zerbait orain arte gertatutakoaz, dagoneko badakite Estatuaren errepresioa hor dagoela, egiturazkoa dela. Gehien-goia lortzen bada uste dut urriaren 1a eta Errepublika sinbolo gisa erabiliko direla, sostengu moral gisa berriz ere elkarrizketa eta aldebikotasuna eskatzeko. Aldi berean botere autonomikoa garatuko dute eta saiaturiko dira nazioartean Espainiaren izaera erakusten, Europak parte har dezan. Independentismoak irabazten badu, konpromiso

serioan jarriko du Gobernua, pilota berriz bere esparruan utziko duela errematatu dezan.

CDRak –Errepublikaren Defentsarako Komiteak– klabe izan ziren kaleko mobilizazio erraldoietan. Bizirik daude oraindik?

Bai, guztiz, zer gertatu zain daude. Abenduaren 22an Errepublikaren aldeko gehien-goak irabazten badu, ANCK eta Òmniumek orain

arte bezala jarraituko dute? Edo ikasiko zuten jada instituzioekiko menpekotasun handiegia izateak orain arteko egoerara eramaten duela? CDRek dagoeneko badute ANCK eta Òmniumek duten transbertsalitatea, baina hiruen artean ez dute oraindik estatu nagusia eratu. ANCK eta Òmniumek oraindik menpekotasun handiegia dute alderdi instituzionalekiko.

Eta nola egin aurre errepresioari? Desobediencia zibila...

Oraingoz hortaz hitz egitea metafisika da, baina halako egoera bat emango balitz, Gobernuak aurreikusi beharko luke 155. artikulua hor izango duela eta aurre egin beharko liokeela. Lehenengo gauza Mossoen kontrola litzateke, zalantzan izan daitezkeen mando guztiak kendu beharko lirateke eta Gobernuaren konfiantzazkoak jarri. Hori egiten ez baduzu, beti harrapatua izango zara. Baina JxCat-en eta ERCren gobernu bat ez dut ikusten horretan. Aitzitik, bai ikusten dut posible kale aktibazio handiagoa izango den fase baten irekiera.

Eta uste duzu herritarrak badirela horretarako prest? Neke zantzuak ere ikusi izan dira.

Estatuak 155.ekin jarraitzen badu, errepresioan, eta ANCK eta Òmniumek ez badute ezer egiten, indarra galtzen joango dira eta Generalitateko eta alderdietako burokraten esku utziko dute ekimena. ■